

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtziona dezan aplikazioak dituen elementu bereizgarriak ondo antolatu behar ditugu; hau da, jendeak erakartzeko elementuak jarri behar ditugu. Hala ere, funtsezko jarduera guztiak aurreko faktorekin lotuta daude; bezeroekiko harremanarekin, funtsezko sozietatekin... Argi dago enpresa batek funtzionatzeko bezeroekin kontaktuan egotea edo irabazien igoera eragingo duen sozioak izatea garrantzitsua dela.

Beraz, hauek izan daitezke funtsezko jarduetariko batzuk:

- Gure aplikazioa ezagutzera emango duten sozioak izatea. Akordioak eta negoziazioak egin beharko ditugu pertsona horiek gure proiektua zabal dezaten. Horrela, irabaziak asko handituko dira.
- Beste alde batetik, diru-sarrerak kontrolatzeko, proportzionalki kontratatu beharko ditugu langileak eskariaren arabera. Hasieran, langile gutxirekin enpresa aurrera atera ahal izango dugu, ez delako hainbeste erabiltzailerik egongo eta, beraz, horiekin kontaktuan jarri beharko diren pertsona-kopurua ere txikiagoa izango da. Gastuak ere kontrolatzeko eskaria kontuan izango dugu eta lehenengo hilabeteetan langile kopuru murriztu batekin eta lokalik gabe aurrera atera beharko dugu enpresa, bakoitzak bere etxetik edo etxe bateko gune batean elkartuz.
- Gure proiektua erabiliko duten pertsonak nerabeak izango dira batez ere. Beraz, aplikazioa zabaltzeko erabiliko ditugun kanalak aukeratu beharko ditugu gazteei hel dakien.

Aurreko faktore guztiekin zer ikusia duten jarduerak aurrera eraman beharko ditugu, funtsezko jarduera horiek gure proiektua bultzatuko duten ekintzak izango baitira.